HIRIGINTZA I (3. maila)

2009-2010 ikasturteko 2. lauhilekoko 6. ariketa (azkena)

AL-24 AUDITZ-AKULARREKO PLAN PARTZIALA

Donostiako **AL-24 Auditz-Akular** sektorerako bide-sare eta partzelazio berria proiektatu eta gero, eraikuntzaren antolakuntza zehaztuko da, beharrezkoak diren hirigintza-fitxak eta -parametroak adieraziz. Horrekin batera, Plan Partziala osatzen duten gainontzeko planoak ere emango dira.

Hirigintza-eraikigarritasuna indarrean dagoen planarena izango da, hots, 287.200 m^2. Horietatik, etxebizitza-erabilerarako lurzoruaren mailatik gorako eraikigarritasuna 247.200 m^2-koa izango da, eta ekipamendu pribatuena (komertzioa, bulegoak…), 40.000 m^2-koa. Lurzoruaren mailatik behera —sotoan—, libre.
Sektorearen muga argi adieraziko da plano guztietan. Sektoreak, gehienez, 643.693 m^2-ko azalera edukiko du.
Tokiko zuzkidurei dagokienez (espazio libre eta ekipamenduak), EAEko 2006ko Lurzoruaren Legea aplikatzearekin nahikoa da (79. artikulua, batez ere). Bestela, indarrean dagoen Plan Partzialeko "A, C eta D agiriak" idazkian zehazten diren zuzkidurak kokatu daitezke.

Gutxienez eman beharreko informazioa (ahal den neurrian, indarrean dagoen Plan Partzialeko kolore berdinak erabiliko dira):

1. Ideia nagusiak, helburuak, estrategiak eta sistema orokorren aldaketak (egotekotan).
2. Bide-sarea, kota zaharrak eta berriak, lur-mugimenduak eta lurralde-mailako elementuen zor-eremuak (partzelekin; eraikinik gabe).
3. Zonifikazio xehea, partzelen izendapenarekin (partzelekin; eraikinik gabe; sistema orokorrak ere zehaztuko dira).
4. Eraikuntzaren lerrokadurak eta erabilerak sotoan.
5. Eraikuntzaren lerrokadurak eta erabilerak behe-solairuan.
6. Eraikuntzaren lerrokadurak eta erabilerak goiko solairuetan (batekin nahikoa izan daiteke, altuerak adierazten badira: adibidez, S+BS+IV).
7. Sekzio orokorrak.
8. Eraikinen tipologien ereduak.
9. Partzelen hirigintza-fitxak (ekipamendu publikoen partzelak izan ezik; orientazio gisa, begiratu "B agiria" izeneko PDFan agertzen diren fitxak).
10. Hirigintza-parametroen laburpen-taula (legearen eskakizunak eta planaren parametroak alderatuz; sistema orokorren tamaina ere zehaztuz).

Planoen eskalak talde bakoitzak finkatuko ditu. Ematea paperean zein CDan izango da: paperean, din A-1 formatuan, A-4ra tolestuta; CD-an (.pdf edo .jpg + .dwg edo .dxf formatuetan). Kontakturako posta elektroniko bat ere zehaztuko da. Guztia, **maiatzaren 27**ko 18:00ak baino lehenago emango da.

Gasteizen, 2010eko apirilaren 29an.

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño